B
BARREN
ELGOIBAR - 657. zenb. - XVI urtea - 2008-06-06

Fernando Bautista

# Gizona bere motorrean



# K.E.Y. hizkuntza akademia

Trenbide kalea, 19 behea - Tel: 943 74 30 44

**Uztailaren 1etik 24ra ingeleseko ikastaroak goizez.**

- Eskolak orokorrean
- Laguntza eskolak: - Lehen hezkuntza
  - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
  - Batxilergoa.

**Izen ematea ekainaren 26ra arte.**

K·E·Y Academia de

CAMBRIDGE Unibertsitateko
Azterketetarako Batzordeko kidea ES438




- 2008/2009 ikasturterako matrikula zabalik.
- Haurrak eta gazteak, ingelesa, frantsesa eta alemana.
- Cambridge azterketen prestakuntza.
- Young Learners, Ket, Pet, First Certificate




**OPARI-ARTIKULUEN SUSTAPENA!!**

San Frantzisko, 40 - Tel.: 943 74 33 41

# Hipokritia naiz

Zein hipokritia naizen nere semiari drogak txarrak dirala esaten diotenian, eta tabernara nerekin eruaten dotenian. Zein hipokritia bestiekiko errespetua eskatzen diotenian, eta autua gidatzen nixenian gaiñontzeko gidarixez gaizki esaka hasten naizenian. Eta berakin ibiltzen nixenian, semaforua gorrixan dauan bittartian kalia gurutzatzen dotenian?

Nere semiak *Eskola Kirola*-ko partidua daukanian, nola jokatu bihar daban esatera juten naiz, entrenatzailliaren ahotsaren gaiñetik hitz egiñaz eta epailliaren erabakixekin ados ez naguala danen aurrian ohiukatzeko ohitturia daukat. Hori bai, ez dakixola okurrittu neri ahotsa altzatzerik.

Nere semiaren konportamendu asko ez dittut ulertzen, eta gaitzetsi egitten dittut. Hala ere, telebista piztuta daukagula afaltzen dogu.

Arauak errespetatzeko eskatzen diot, baiña autuan nixenian bihar baiño azkarrago gidatzen dot, eta, zebrabidietan norbait gurutzatzeko zain badago, neu pasatzen naiz bere aurretik.

Txikixa dan bittartian behintzat, euskeraz egitten diot, eta eskolan D ereduan apuntau dot, euskalduna izan dein nahi dotelako. Zertan nabill orduan euskeraz dakixen nere lagunekin erderaz hitz egitten?

Nere alabiakin askoz zorrotzagua naiz nere buruakin baiño. Nik betetzen ez doten konportamendu bat eskatzen diot berari. Eta, jakiña, gauzak bihar bezela eta zuzen egitten ez badittu, haserretu egingo naiz. Zigorra ere jasoko dau ziurrenik.

Noiz konturatuko naiz nere seme-alabak, hitzak baiño askoz gehixago, nere adibidia jarraitzen dabala? Noiz exijittuko dizkiot neure buruari bestieri eskatzen diuedazenak? Noiz arte izango naiz horren hipokrita?

Andoitz Agirregomezkorta



**“Noiz konturatuko naiz nere seme-alabak, hitzak baiño askoz gehixago, nere adibidia jarraitzen dabela?”**

“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com





# mikel elizegi

**Bihar, zapatua, Juan Mari Arzak sukaldaria izango da *Ordu txikitan*-eko azken aurreko gonbidatua. Mikel Elizegi goizuetarrak jartzen dio gatza eta piperra ETBko saioari. Astelehenetik eguenera, berriz, ogi artean egiten du lana ordu txikietan. ETBn kamera atzean praktikak egiten hasi zen Andoainen Bideo eta Zine ikasketak egin ondoren. Gero, urte askoren ostean, *Sorginen Laratza*-n bazterrak astintzeko itzuli zen. Ekainaren 13an bukatuko zaio kontratua.**

**Andoni Iturbe**

## "Umeekin pazientzia gehiago izaten ikasi dut"





**Julian lantzi ere Irunen bizi da. Bizilagunak al zarete?**

Auzo berean bizi da, nahiko ondoan. Ez nekien hemen bizi zenik, elkar ikusi genuenean, "Zer egiten duk hemen. Eta hik?" galdezka hasi ginen.

**Okindegian lanean jarraitzen duzu?**

Bai, goizeko 5:15etan jaiki eta 14:00etara egiten dut lan astelehenetik asteazkenera. Ostegunetan eta ostiraletan telebistan egiten dut lan. Astebukaeretan jai egiten dut, bestela nekatu egingo nintzateke.

**Okindegietan ia egunero egiten du lan jendeak…**

Gurea nahikoa berezia da. Ez da okindegi okindegia. Ogia egiten dugu, baina oso gutxi. Produktu kongelatuak egiten ditugu.

**Dena den, ordu txikietan lan egitera ohituta zaude…**

Bai, hamabost urte dagoeneko ordu horretan jaikitzen. Erraz esaten da.

**Gorputza ohituta dago?**

Ohitzen da, azkenean. Nahiago dut lo pixka bat gehiago egitea. Behin esnatu ezkero, berdin zait, gainera gero arratsalde guztia jai duzu.

**Okindegian lanean hasi aurretik zertan ibili zinen?**

Andoainen Zine eta Bideo ikasketak egin nituen, eta gero ETBra joan nintzen praktikak egitera. Soinu teknikari jardun nuen hiru hilabete eta hori bukatu eta gero joan nintzen leku askotara oposizioak egitera: Valentziara, Zaragozara... Ez nuen plazarik lortu. Txarra izango nintzen, eta azkenean, enpresa honetako nagusia koinatua denez, hemen hasi nintzen.

**Eta kastingetara ez zinen joan?**

Ez, ez zitzaidan bururatu. Lanean hasi nintzen okindegian, eta hasieran jarraitu nuen curriculumak bidaltzen, baina ez zidaten kasurik egiten. Eta nire buruari berdin zela esa-

ten nion. ETBkoek saio berrietako kastingetara aurkezteko bakarrik deitzen dute. Alferrik da zuk deitzea. Horrela funtzionatzen du.

**Eta *Sorginen Laratza* bukatzean, zure pagotxa bukatu zelakoan zeuden?**

Oporretara joan eta Oscar Terolen deia izan nuen TVEko *Made in Chinan*-ra joateko. Anjel Alkainek ere bazuen interesa *Wazemank* eurekin egiteko, baina nik hitza emanda nuen. Astean behin joaten nintzen kale inkestak egitera Malagara, Madrilera… baina platoa Donostian zegoen. TVEn nengoela utzi nuen lehenengo aldiz okindegia. Soldata hobea nuen. Urtebeteko eszedentzia eskatu nuen, baina hilabete bakarra egin nuen lan. Han gustura egon nintzen, eta gero urtebete egon nintzen ezer ere egin gabe. Eta ETBtik deitu zidaten casting batera aurkezteko. *Ordu txikitan* aurkezteko aukeratu ninduten.

***Sorginen Laratza*-n zure ahots aldaketak ezagun bihurtu zenituen. Berezkoa duzu?**

Bai, txiki-txikitatik egin dut, nire amak esaten zidan: “Mikel, ojo, eztarri horrekin”. Ez dakit nola egiten dudan. Aspaldi ez dut egin, baina edozein momentutan egin dezaket.

**Baina ez duzu, orduan, paper bat egiten…**

Ez. Ezagutzen nautenek badakite ezetz.

**Kamera aurrean ere ez zara lotsatzen den horietakoa...**

Beti izan naiz lotsagabea, txiki-txikitatik, eta uste dut izan behar dela. Ez lotsagabe lotsagabe, baina bai bihurria… Ez baldin bazara lotsagabea, ezingo duzu kale inkestarik egin.

**Baina kaleko jendeak kamera ikustean alde egiten du…**

Bai, asko kostatzen da. Askok atzera egiten dute. *Made in China*-rekin Sevillara, Madrilera… joaten nintzenean denak gainera etortzen ziren. Han ordu erdian egiten bagenuen, Euskal Herrian bi ordutan.

**Zenbat urte ditu zure semetxoak?**

Hiru urte ditu Enekok. Bera da nire bizitzan pasatu zaidan gauzarik politena. Umeekin pazientzia gehiago izaten ikasi dut. Ez dut asko. Pronto txarra dut.

**Telebistan ikusi eta ezagutzen zaitu?**

Bai, gehienetan eskatzen du *Ordu txikitan*-eko CDa jartzea. Saio guztiak CD batean ditut. Grabatzera joaten naizenean, ostegunero jartzen diot, lasaitzeko.

**Goizuetan kirolari onak daude. Kirolaria izandakoa zara?**

Bai, beti, baina azken urteotan bizkarretik oso gaizki nabil. Areto futbolean lehiatu izan dut Gipuzkoako ligan, pilotan, palan… Hiru edo lau bat urte oso gaizki daramatzat. Igeriketa egiteko esaten didate, baina bakarrik aspertu egiten naiz. Horrelaxe etortzen dira kiloak.

**Zer duzu bizkarrean?**

Ernia diskala. Azkeneko aldian negarraldia bizkarreko minagatik izan da. Hilabete bat ezin altxatuta ibili naiz. Emazteak laguntzen zidan ohetik altxatzen. Parkean ere umeari begira egoten naiz, ezer ere egin gabe.

**Nor eramanago zenuke zure saiora?**

Julian Retegi eta Karlos Arguiñano. Julian Retegik ez du nahi. Errespetatzen dut, gure saioan ere kontu pertsonalez hitz egiten dugulako. Karlos Arguiñanoren kasuan, ezin izan dugu berarekin zuzenean hitz egin, ordezkariek ezezkoa esaten digutelako. Agian Telecincon lan egiten duelako da, eta guk ETBn. Ez dakit.

**Ea zortea duzuen….**

Ekainaren 13an egingo dugu azken saioa, gero errepikapenak hasiko dira. Irailean ez dugu jarraituko. Bukaera honetan audientzia onak lortzen ari gara. Baina programazioa aldatu nahi dute nonbait. Mikel Goñirekin grabatuko dugu gaur; denbora asko ibili gara bere atzetik. Hurrengo larunbatean aterako da.

**“Hilabete bat ohetik ezin altxatuta ibili naiz bizkarrean nuen mina zela-eta”**

## Etorkizuna

Ekainaren 13an ETBrekin duen kontratua amaiatuko zaio. Ez dago arduratuta, okindegian lan egiten jarraitu dezakeelako. Azken hiru urtetotatik bere lehentasunak izen propioa du: Eneko, bere semea. Kamera atzean ere, ezkutuan, eroso sentitzen da. “Gidoiak idaztea gustatuko litzaidake, buru hausteak izatea. *Sorginen laratza*-n ere gidoia ematen zidaten, baina nik buelta eman behar izaten nion, eta azkenean nik nahi nuena egiten nuen. Kalean jendeak ez dakizu nola erreakzionatuko duen”, adierazi du. Kalean jendeak geldiarazi egiten du, bereziki bere jaioterrian eta inguruetan, ia beti hitz ederrak esateko. “Jendeak telebistan ni neu naizela esaten du, eta ez nabilela paper bat antzezten. Hori laudorio politena da”, argudiatu du.







# Lau egunetan Iberiako penintsulari buelta motorrean

FERNANDO BAUTISTA




*Bigarren etapari ekin aurretik argazkiak atera zituen Fernando Bautistak bere herrian.*

**Fernando Bautistak Iberiako penintsulari buelta eman zion motorrean lau egunetan, beti ere kostaldetik. Bidaia bakar-bakarrik egin zuen, bere BMW 1.200 GS Adventure motor gainean, maiatzaren leheneko zubian. Ibizan bizi den elgoibartar honek 4.435 kilometroko ibilbidea osatu zuen. Nekatuta amaitu bazuen ere, esperientzia zoragarria izan zela aitortu du interneten argitara emandako bidaia kronikan. Jarraian, bidaiaren laburpena eta *ElgoiBARREN.net* webguneari egindako elkarrizketaren zatixo bat.**

**Maiatzak 1: Denia - Cadaques - Elgoibar (1404 km.)**
**Hasiera: 07:30 Amaiera: 23:00**

Tarragonan egin behar zuen lehen geldiunea, lagun bati bisita egiteko. Hala ere, despisteren bat tarteko, ez zuen seinalea ikusi eta atzean laga zuen herria. Cadaques ingurua bidaiako lehen sorpresa atsegina izan zen. Hango bista eta paisaiarekin txundituta gelditu zen. Cadaqueseko edozein bazterretan "Gala edo Dalirekin topo egingo nuela uste nuen", dio Bautistak. "Ez zen hori gertatu, baina denboratxoa eman nuen zentzumenak alaitzen, aurrerantzean egin beharreko kilometroez jakitun. Hain ondo egoten zen…", idatzi du Cadaqueseko geldiunearen inguruan.

Gau horretan Elgoibarren afaldu zuen, Bartzelona eta Zaragozatik pasatu eta gero. Familiaren eta lagunen ondoan ez zen nahi beste egon. Bidaia luzea gelditzen zitzaion oraindik...

**Maiatzak 2: Elgoibar – Finisterre – Porto (1068 km.)**
**Hasiera: 10:00 Amaiera: 02:00**

Bigarren etapa luze joan zitzaion Bautistari, espero baino ordu gehiago eman zituelako motor gainean. Bilbo eta Santandertik pasatu ondoren, Xixonen egin zuen geldiunea, eta lagun bati bisita egin zion. Espero baino denbora gehiago eman zuen han: ordu bi eta erdi, hango jakiak eta sagardoa dastatzen. "Emaitza: *Asturias patria*

*querida* abesten irten nintzen handik". Arazoak hegoalderantz ekin zionean hasi ziren, Galiziako errepide galduetan. Erreserban hamaika kilometro eta gasolindegirik ez. Azken momentuan, ixtear zeuden zerbitzugune batekin topo egin zuen. GPSak ez zuen igarri.

Fernandoren arrebak Portoko hotel batetik deitu zion, han lo egiteko lekua zeukala esanez. Autopistatik hainbat arinen heldu zen Portugaleko hiri horretara, baina ordubete eman zuen galduta, hotela aurkitu ezinik. Azkenean 2:00etan itzali zuen motorra.

### Maiatzak 3: Porto – Lisboa – Sevilla (929 km.)
### Hasiera: 11:30 Amaiera: 23:00

Nekea igartzen hasia zen Fernando. Ezin zuen poltsa bat ondo heldu eskumako eskuarekin, azeleragailuari eragitekoarekin. Azkenean arrebak lagundu zion. Familiari agur esan eta Porton bizi den lagun batekin inguruak bisitatu zituen.

Gero, bakarrik segitu zuen. Lisboatik pasa eta hegoalderantz jarraitu zuen. Autopistatik irten eta itsaso ondoko biderantz jo zuen. "Bidaiako kilometrorik politenak izan zirela uste dut". Kostaldearen edertasunak liluratuta laga zuen. Portimaon Elisa zeukan zain, KTM motor batekin. Inguruak erakutsi zizkion.

Handik Sevillara. Han etorri zitzaion gaua eta han geratuko zen lotan. Hiri erdian hotel "garesti eta eskasa" aurkitu zuen Fernandok. "Gainera, aparkalekuarekin engainatu ninduten", dio Fernandok.

Loak hartu aurretik bi ardura zeuzkan buruan dantzan: batetik, mila kilometro gelditzen zitzaizkion hurrengo egunean, 20:30etan Denian ferrya hartzeko eta trafiko handia egon zitekeen; bestetik, eskua txarto zeukan: "Motorretik jaistean kremailera zabaldu edo ixteko indarrik ere ez neukan".

### Maiatzak 4: Sevilla – Tarifa – Denia (1034 km.)
### Hasiera: 08:30 Amaiera: 20:05

Sevillako kaleetan paseatu ondoren, Hegoaldera jo zuen. Tarifako lurmuturrean gelditu egin zen. Gero, motorra piztean, arazoak: enbragatzeko likido barik gelditu zen. Eskerrak gasolindegi bateko laguntzari. Baina aurrera egin behar zuen. Deniako barkua ez zen bere zain geldituko. Malagara heldu aurretik, auto pilaketa luzea: jendea, bere moduan, etxera bidean, geldi, lau egunetako oporralditxoaren ostean. GPSak atzerapena handia zela errepikatzen zion. Halako batean autoak martxan hasi ziren: "Oraindik bazen itxaropenik".

GPSaren aurreikuspenak baino bizkorrago zihoala ikusirik, Gatako lurmuturra bisitatzeko astia ere hartu zuen. Handik Deniara. Bazekien ailegatuko zela, ezustekorik egon ezean behintzat. Eta ez zen gauza arraroirik gertatu. Azkenean Deniara heldu zen, hamar minutuko aurrerapenez, gainera.



## "Bidaiak egiteko motor ezin hobea da nirea"

- **Noiztik bizi zara Ibizan? Ez du bizitzeko toki txarra ematen...**

Orain dela sei urte iritsi nintzen estreinakoz Ibizara, eta irlaz maitemindu nintzen. Ibizaz etengabe gozatzeko aukera emango zidan lanaren bila hasi nintzen, eta baita topatu ere: luxuzko altzariak saltzen dituen enpresa batean kontularia naiz. Mundu osoko pertsonaia ezagunak pasatzen dira bertatik. Bizitzeko leku zoragarria da Ibiza, kontrastez betea: natura egunez, jaia gauez, jende pilaketak udan eta neguko lasaitasuna. Paradisua.

- **Zein motorrekin egin duzu bidaia? Zein ezaugarri ditu?**

BMW 1200 GS Adventure bat da. Ibizarako handiegia denez, ahal dudan guztietan bidaia luzeagoak egiteko ateratzen dut. Bidaiak egiteko motor ezin hobea da: indartsua, segurua, erosoa eta aukera askokoa. Trail erakoa denez, lur pistetatik ere sartu naiteke berarekin. Lur guztietarako ibilgailua da.

- **Noiztik daukazu motorra?**

Ibizara heldu nintzenetik. Lehendik ere gogoko nituen, baina beti aurkitzen nuen arrazoiren bat ez erosteko. Hemen ezberdina da. Ibiza moduko irla batean ibilgailurik aproposena da: autoilarak ebitatzen ditu, aparkatzea errazten du, kala izkutuetara iristea lagatzen du, eta gainera, gutxiago kutsatzen du. BMW txikiago bat (650 cc) eduki nuen lehenik, eta orain urte eta erdi erosi nuen berria. 45.000 kilometro egin ditut berarekin.

- **Motorrean bidaia luzeak egiteko afizioa daukazu. Nondik nora ibili zara?**

Momentuz, penintsula barruan egin ditut bidaia ia denak. Probintzia guztietan eta irla batzuetan izan naiz. Horrez gain, Frantzia hegoaldea, Portugal eta Maroko iparraldea (Sahararaino) ere nahiko ondo ezagutzen ditut. Aurten Atenaseraino (Grezia) ailegatzea gustatuko litzaidake, Italiatik joan eta Balkanetatik itzuliz.

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: ***barren@elgoibarkoizarra.com***.

**Eskerrik asko**

Basarte Elkarteak eta 40-15 Tenis Elkarteak eskerrak eman nahi dizkiegu Gaztetxoen Tenis Txapelketa posible egin duten babesle eta kolaboratzaileei (Zubacor, DMP, Mapfre Aseguroak, IMH eta Kirol Patronatua) eta baita ikastetxe, guraso eta partehartzaileei ere.

**Basarte eta 40-15 Tenis Elkarteak**

**Zapatu gaua**

“Vete de aquí o te meto cuatro hostias” edo antzerako zerbait esan zidan *atendidu* ninduen Guassesko hiru seguratetako batek (beltzaran kalboso batek). Hori entzun eta onena handik alde egitea zela pentsatu nuen, izan ere *ostixak* jasotzia ez zait bat ere gustatzen. Gainera, atean egoten den segurata *ilehoriaren* kaskarreko bat jasota nengoen ordurako. Guass kanpoan nengoen, kalean, hortik joateko *inbitaziua* jaso nuenean.

Zoritxarrez horrelako gertakariak ohikoak bihurtu direlakoan nago. Heldu zen domeka eta inguruko jendeari gertatutakoa kontatu nionean, bi erantzun mota jaso nituen. Batzuk ez zuten ulertzen seguritate lanerako nolatan kontratatu daitezkeen matoi batzuk. Beste batzuek, aldiz, seguritatekoen lana hori dela (hau da, jendea mehatxatzea) esan zidaten, eta ez buelta gehiago emateko.

Ez dakit egunen batean zure lagun edo ezagun batek halako istorio bat kontatzen dizunean zein izango den zure erreakzioa. Espero dut lehenengo erantzun motatik gertuago egotea bigarretik baino.

Seguru asko Guasseko beltzaran kalbosoak ez ditu hitz hauek irakurriko; beraz berari ez diot ezer esango. Baliteke Guassean *partea* duen norbaitek hitz hauek irakurtzea, eta berari zera esango nioke: ez jarri matoirik seguritate lanak egiten. Mesedez!!!

**Urtzi Alkorta**



2008ko ekainaren 3an hil zen, 52 urte zituela,
*Maribel Gonzalez Relloso* andrea.

*BETI IZANGO ZAITUGU GOGOAN*

*Mintxetako lagunak*



Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea: ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza, Andoni Iturbe PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.750 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Anjel Ugarteburu

Gogoratzen, Andres? *Denok ala inor ez, dena ala ezer ez* kantatzen joan Mikel Laboak 1970eko hamarkadan. Bai ala ez, zuria ala beltza, bitarteko ezbai eta kolore nabarrik barik. Gazte gu eta gogoko genduan mezu hori.

Urteak aurrera joan ahala eta kaskarreko batzuk hartu ondoren ikasi genduan zuriaren eta beltzaren artean badirela grisak ere, egunaren eta gauaren artean ilunabarra eta egunsentia diren lez. Gehiago esango nuke: luzaroago bizi gaituk ilunabarraren etsipenean eta egunsentiaren itxaropenean. Ilun osoa berez dok ilun, ez jok aukerarik ematen eta eguzki distiratsuak berak ere itsutu egin gaitzakek.Gazteak erradikaltasuna jok maite, eskarmenturik gabeko ikuspegiaren baitan. Hala ez balitz, ez litzatekek gazte. *Dena ala ezer ez.*

## "Gazteak erradikaltasuna jok maite, eskarmenturik gabeko ikuspegiaren baitan"

Bizitzaren mendi magalean gora egin ahala, goiko ikuspegi zabalagotik, alferrik ibilitako estarta eta aldapa pikoak ikusten dituk eta orduan konturatzen dok bat *dana* eta *nada* gauza bera izan daitezkeela (Mikel Lasa poetaren irudia hartuz). Euskarazko beste hitz batzuekin ere halako metatesiak gertatzen dituk: *iragan/igaran; irudi/iduri.*

*Dana emon behar yako!* Idatzi joan Lauaxetak gazteak eta bai eman ere. Ez dituk gauza bera, baina, haren sasoiko eta gure *dana*. Mendiaren gailurrera iristeko bide egokiena egin behar joagu, dana hori benetakoa izan dadin. Izan ere, *dana* horrek, *nada* bihurtuko ez bada, zarataren eta eguzkiaren distira ez ezik, lan isileko ilunabar eta egunsenti grisak ere bere egin behar dituela esango nuke. Bai ala ez, Andres?



Andres Alberdi



Metaforazale (*meta-fora* berriro!, Anjel) hator gaurkoan: *dana/nada, nada/dana; mendi gailurrera iritsi, lan isileko ilunabar*… Belarrietatik tira egin beharko nikek, ideia eta hitz-joko horiei izen eta kolore zehatza ez emateagatik. Nagok Euskal Herriaren burujabetasunaren aldeko apustuaz ari haizela.

Heure hitzez hustuko diat barrua: egia esan, gurean, gaur egun, *nada*-tik gehiago espero diat *dana*-tik baino.

Natorren harira: politikatik kanpora gaudenoi zaila egiten zaiguk gurean politikan zer gertatzen ari den ulertzea, eta errua ez duk gurea bakarrik; politikariek, nire ustez, gero eta gutxiago komunikatzen ditek/ -tzen zekitek/ -tu nahi ditek… Ez diat ulertzen Ibarretxeren kontsulta zertara datorren ere.

## "Politikariek gero eta gutxiago komunikatu nahi ditek"

Baina herritar soilok ere badiagu errurik. Bi aipatuko ditiat gaur: Bat. Erreferentzia garbia genuen herrigintza egitea ahaztu zaiguk (horri begira geundenean eman genitian onenak herri-mugimendu gisa), eta hori politikarekin, partidismoarekin nahastu diagu. Inozoak gu, politikak korapilo guztiak askatuko dituelakoan bagaude.

Bi. Birtualak egin zaizkiguk ideia politikoak; errealitatean sustraitu gabeak, kritikoki geureganatu eta barneratu gabeak. Eta, hala, beren burua abertzale sutsutzat duen jendeak Iparraldeari Frantzia deitzen ziok oraindik, tabernari euskaldunak iragarkiak erdara hutsez jartzen ditik, euskaraz dakienak ez dik euskaraz egiten, EAEn ikusten da gehien Telecinco …

Merezia diagu daukaguna.

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DANOBAT
kutxa
GOITI
GRUPO DANOBAT

Bi jardunaldi falta dira Bigarren Mailako denboraldia bukatzeko eta igoeratik puntu batera dago Reala

# Zure ustez lortuko du Realak Lehenengo Mailara igotzea?



**Alana Berraondo**

**17 urte, ikaslea**

Bai, nik uste dut lortuko duela. Denboraldia jarraitu dut eta ilusioa egiten dit. Pena eman zidan mailaz jaitsi zenean. Igotzen bada, datorren urtean mailari eutsiko dio. Ziur nago.



**Aritz Arizaga**

**17 urte, ikaslea**

Bai, gainera ilusioa egiten dit. Merezi du beste euskal taldeen mailan egotea, baina Osasunak mailaz jaistetea nahi dut, egin zigun guztiarengatik. Amorrua diet.



**Rosa Labrador**

**52 urte, gizarte laguntzailea**

Realzalea naiz eta ilusioa egingo lidake. Sufritu dugun guztia eta gero, merezi dugu Reala Lehen Mailan ikustea. Zaila du ez dagoelako bere esku bakarrik, baina itxaropena dut.



**Borja Ortiz**

**17 urte, ikaslea**

Garesti izango du. Gainera Athleticekoa naiz, eta ez ditut Realaren aldeko kartelak leku guztietan ikusi nahi. Etxe batzuetan hasi dira jartzen. Baina egia da derbiengatik igoera ondo egon litekeela.

## 10eko TXIKIAN



## MIREN PAGOAGA

Ume zaintzailea

**1. Zer falta zaio Elgoibarri?**
Umeentzako jolas parkea.

**2. Alkatea bazina, zer egingo zenuke di-da batean?**
Zapatu arratsaldeko giroa aldatu, gaztetxoena. Nola? Ez dakit. Baina hamazortzi urtetik beherakoek alkohola edaten dute tabernetan. Supermerkatu aurrean ere udaltzainak falta dira karnetak eskatzen.

**3. Nolakoak gara elgoibartarrak?**
Umeekin nahiko irekiak dira, eta nahikoa erraz sartu naiz koadrila batean. Jende irekia topatu dut. Hasieratik gustura egon naiz herrian.

**4. Egia da jendea oso gutxi mugitzen dela?**
Kexatzerako garaian ez. Jendeak proposamenak egin ditzala, bestela gero alferrik da kexatzea. Ni Haizea Emakume taldeko kide naiz.

**5. Aukeratu egun bat lagun bat gure herrira gonbidatzeko.**
Txiki Eguna.

**6. Aukera nahikoa dago Elgoibarren kirola egiteko?**
Nahikoa eskas geratu da kiroldegia, segituan betetzen da, batez ere igerilekua. Bestela, nahikoa aukera dago.

**7. Ausartzen zara kultur eskaintzari tentsioa hartzen?**
Eskaintza badago, eta ahal dudan neurrian joaten naiz kultur emanaldietara. Haizeak bideo foruma antolatzen duenean, gero eta jende gehiago etortzen da. Antzezlanak ikusteko txartelak lortzeko ere nahiko arin ibili behar da.

**8. Herri euskalduna iruditzen zaizu gure herria?**
Borroka daukat nire buruarekin. Hemen ikasi nuen erdaraz. Nik euskaraz egin eta erdaraz erantzuten didate askotan, eta nik ere salto erdarara egiten dut. Seme-alabek ere erdaraz erraz egiten dute.

**9. Joango zinateke beste herriren batera bizitzera? Nora?**
Ez, konforme nago hemen.

**10. Ondo komunikatuta dago gure herria? Erabiltzen duzu garraio publikoa?**
Ondo komunikatuta dago. San Antolinen bizi naiz. Trenak eta autobusak badaude, gainera tranbia ere egitekoak dira.

**Azken bi urteotan Aizkorri kaleko berdeguneak ez dituzte zaindu:** “Aizkorri kalean metro bateko altura dauka belarrak, eta itxura oso zatarra dauka inguruneak. Udalak esaten du urbanizazioa oraindik ez dagoela bere gain eta horregatik ez duela belarra mozten. Bizilagunok hasi behar dugu belarra mozten? Ez dago eskubiderik”.





**Pedro Muguruzako parke berria txakur kakaz beteta egoten da:** “Jubilatuentzat ez ezik, umeekin joateko ere parke polita da Pedro Muguruzakoa, baina askotan, txakur kakaz beteta egoten da. Aurreko zapatuan umeekin joan ginen, eta kakaz noiz zikinduko beldurrez egon ginen etengabe. Haibeste kostatzen da garbitzea?. Herriko txokoak txukun eduki behar dira”.

**Txalo bat Udalari errotondak hain dotore edukitzeagatik:** “Zelako politak dauden gure herriko errotondak! Aspaldian izan ditugun berdegunerik politenak dauzkagu herrian azken urteotan, eta Udalak txalo bat merezi du. Diru asko inbertitu du lan horretan, eta badirudi asmatu duela. Udaberria loreen garaia da, eta denetariko lore motak ikus daitezke gure herriko errotondetan. Madalakoa oso polita dago, benetan. Belarra izugarri luze zegoen autopista inguruko berdeguneetan, baina dagoeneko moztu eta dena txukundu dute. Jarraitu horrela!”.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
*barren@elgoibarkoizarra.com* / 943-74 41 12



# Gipuzkoako Foru Aldundiak 2011. urtean jarriko du martxan Apraizko depuradora

## Debabarreneko 90.000 bizilagunen ur hondakinak garbituko ditu



Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamenduko diputatuak, Carlos Ormazabal, esandakoaren arabera, 2011. urterako errendimendu osoan egongo da Apraizko depuradora. Joan zen astean lanen atzerapena eta aurrekontua handitzearen azalpenak eman behar izan zituen diputatuak, Felix Asensio PSE-EEko batzarkideak eskatuta. Ormazabalek esandakoaren arabera, arrazoiak ez daude Foru Aldundiaren esku: "Depurazio sistema berritzaile bat ezarri da, eta ondorioz, kostuak handitu egin dira". Horrekin batera, lanak hasita zeudela, ezusteko hainbat arazo sortu zirela azaldu zuen, eta epeak luzatu egin behar izan dituzte.

Lehenengo jakinarazi zuten aurrekontua (12 milioi euro) txiki geratu dela. 16,22 milioi euro behar izan dira Apraizko depuradora edo ur zikinen araztegia eraikitzeko. Ormazabalek bere azken adierazpenetan esandakoaren arabera, bi edo hiru urteko epean egongo da martxan depuradora.

### Depuradora berritzailea

Apraizkoa depuradora berritzailea dela ere azpimarratu du Ormazabalek. Ohiko depuradorekin alderatuta, espazio gutxiago behar duela esan du, eta gainera, energia gehiago aurrezten duela adierazi zuen.

Apraizko depuradoraren helburua etxe eta enpresetako ur zikinak hartu, tratatu, eta agente kutsakorrak kendu ondoren, berriz ibaira bueltatzea dela gogoratu du Ormazabalek.

28.500 metro kubikoko sei tanke dauzka Apraizko depuradorak eta Debabarreneko 90.000 biztanleren ur zikinak garbituko ditu, hau da, Soraluze, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Ermua eta Mallabiko bizilagunenak.

## 350 gramoko ziza aurkitu du Karlos Agirrek



Karlos Agirrek 350 gramoko ziza aurkitu du Anboto inguruko zelai batean. Udaberriko perretxikorik preziatuenak dira zizak. Karlosek azaldu duen arabera, azken egunotako euriteek eragina izango zuten perretxiku horren hazkundean, izan ere, ez baita ohikoa horrelako ziza handiak aurkitzea. Afari ona egin zutela aitortu digu, "sei arrautza behar izan genituen tortila egiteko".

## Txokoa Olasoko hilerria



Hasi dira dagoeneko Olasoko hilerriko ataria berritzeko lanak. 1459. urteko San Bartolome de Olaso elizatik geratzen den sarrera arkupean egingo dituzte zaharberritze lanak, egurrezko sabaian, batez ere. Besteak beste, estalpe berria jarri eta itxura orokorra hobetuko dizkiote Olasoko hilerriko sarrerari. Proiektu horrek 95.000 euroko aurrekontua dauka, eta Lefesa eraikuntza enpresa arduratuko da. Hiru hilabeteko epea izango du lanak amaitzeko.

## Berbia Lapurreta

Lapurretak ohiko bihurtzen ari dira Elgoibarren. Azkena Fadek ileapaindegian gertatu zen, joan zen asteburuan. Zerraila apurtuta sartu ziren lapurrak lokalera. Lau telebista, bizarra mozteko bost makina, pitxiak eta diru askotxo eraman zutela azaldu digute bertako langileek. Alarma jarriko dute dendan, eta berriz sartzen badira pertsiana jarri beharko dutela esan digute.

## Irudia Mikel Ibañezen aldeko manifestazioa

Mikel Ibañezen osasun egoera salatzeko mobilizazioak antolatu ditu Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak. Joan zen astean manifestazioa egin zuten, eta jende asko bildu zen preso elgoibartarraren askatasuna eskatzeko. Minbizia du Ibañezek, eta haren abokatuaren esanetan, hilzorian dago. Gaur, barixakua, 20:00etan gaixotasun larriak dituzten presoak askatzeko kontzentrazioa egingo da Plaza Handian, eta Amnistiaren Aldeko Mugimendutik mobilizazioetan parte hartzeko deia egin dute.




### San Bartolome parrokiako berritze lanen inaugurazioa

San Bartolome parrokiako lanak amaitu dira dagoeneko, eta datorren domekan, ekainak 8, inauguratuko dira, goizeko 11:00etako mezatan. Errestauratze lanekin batera, aldare berria kontsagratuko dute. Ekitaldian Juan Maria Uriarte Donostiako gotzainak hartuko du parte.



### Organu emaileen informazio mahaiak

Urtero bezala, ekaineko lehenengo eguaztenean izan da aurten ere Organu Emaileen Nazioarteko Eguna. Hori dela eta, bihar, ekainak 7, informazio mahaiak jarriko ditu Gipuzkoako Alcer elkarteak Plaza Handian. Aurten, odol emaileak ere bertan egongo dira, izan ere, odol bankuak asko bajatu dira eta jendea gain horren gainean kontzietziatzen ahaleginduko dira. Odola eta organuak ematearen garrantziaz informatzeko aukera izango da, beraz, goizeko 10:30etik aurrera.

### Txankakua Elkarteko merkatariak kalean

Txankakua Elkarteko dendariek kalera aterako dituzte euren produktuak, hilabeteko lehenengo eguenean. Atzo hasi ziren egitasmo horrekin, eta denda bakoitzaren atarian erakutsi zituzten euren produktuak. Herritarrei produktuak prezio merkeagoan eskaintzea da helburua

# Etorri Berriak

## Euskara eta integrazioa etorkin gaztetxoentzat

**Etorri Berriak programan hainbat herrialdetako gaztetxo etorkinek parte hartzen dute. Elgoibarko Izarra kultur elkarteak dinamizatuta, ez da bakarrik euskara ikasteko zailtasuna duten gazteentzako laguntza hutsa: horrez gain, integrazioa eta kulturartekotasuna bultzatu nahi ditu etorkin nerabeen artean. Oraindik proiektu pilotua bada ere, kurtsoaren amaiera datorren astean etorriko da. Eukene Gil, ekimenaren arduraduna, pozik agertu da jasotako emaitzarekin: enfoke berriarekin gazte gehiagok parte hartzen dute eta, gainera, motibazio handiagoa erakutsi dute. Ikasturte honetan, hamabi neska-mutil izan dira Etorri Berriak egitasmoan parte hartzen, hainbat lekutakoak: Bolivia, Kuba, Brasil, Errusia eta Ekuadorkoak.**



*Programan parte hartu duten gaztetxoak Zarautzera egindako irteeran. Han Hernaniko beste gazte etorkin batzuekin elkartu ziren.*

Beste kultura batetik etorritako neska-mutilek parte hartzen dute Etorri Berri programan. Hemengoarekin zerikusi gutxi dute beste errealitate batzuetatik etorriak dira. Nerabeak dira. Orain herrira egokitu beharra dute, dena da-eta berria: hizkuntza, lagunak, eskola eta irakasleak.

Egoera horretan bizi diren gaztetxoei laguntzeko jarri zuen martxan Etorri Berriak egitasmoa Elgoibarko Izarra kultur elkarteak. Lehenagotik ere Euskara Errefortzuetan parte hartu izan du elkarteak, etorkinei eta euskararekin zailtasunak dituzten ume eta gaztetxoei laguntzeko.

Gaur egun bostetik bederatzi urtera arteko umeentzat Euskara Errefortzuak egon arren, gaztetxoenekin proiektu pilotu bati ekin dio aurten Elgoibarko Izarrak: Etorri Berriak programa, hamarretik hamasei urtera arteko gazte etorkinentzat. Horren bidez, euskararekin lagundu ez ezik, beste bi helburu landu nahi dira: integrazioa eta kulturartekotasuna.

Beste herri batzuetan euskara errefortzu hutsak ere badira, eskola orduetatik kanpo neska-mutil etorkinek euskara ikasi edo hobetu dezaten: aditzak, esaldiak egin eta abar. Baina Etorri Berri egitasmoaren modukorik ez da oraindik beste inon martxan jarri.

“Eurekin egon, lagun izan, integratu hemen eta horrela sentituko dute euskara ikasteko beharra”, uste du Eukene Gilek. Azken batean, motibazioa behar da hizkuntza ikasteko. “Euskara ikasteko moti-



bazioa nondik dator?", galdetzen du. Zertarako ikasiko dute beharrik ez badute sentitzen?

Egitasmo hau Eukenek berak planteatu zuen iaz karrera amaierako proiektuan: ordura arteko errefortzuei beste enfoke bat eman behar zitzaien. "Oraingo planteamendua da integrazioa gazteekin lantzea, kulturartekotasuna lantzea, eta horren bitartez euskara lantzea. Azken batean, etorkinen errealitatea kontuan izan behar dugula uste du. "Eurei entzuten badiegu, euren gauzekin arduratzen bagara eta harremana baldin badaukagu eurekin euskara errazago ikasiko dute", azaldu du.

Familia batzuetan euskara ikasteko presio handia eragiten diete seme-alabei. Eta presio horrek, lagundu beharrean, nerabearen egoera zaildu baino ez du egiten. "Nire ustez lagundu egin behar zaie eta eurengana hurbildu behar dugu", dio. Horretarako ikastetxearen eta gizartearen partehartzea ezinbestekoa da.

**Gazte etorkinen errealitatea gertutik ulertu nahi du proiektu honek lehenik eta behin**

### Emaitzak

Ikuspegia aldatzeak emaitzak ekarri ditu. Errefuertzoetako saioak akademikoagoak izan ohi dira eta motibazioa lantzea ezinbestekoa da. Etorri Berriak egitasmoan, berriz, partehartzea eta asistentzia



handituz joan da. "Eurei eskatzen diegu gai bat aukera dezaten. Sukaldaritza tailerra egitea egin nahi izan zuten eta Gaztelekuan ibili dira hainbat astetan", Eukeneren esanetan. Horrek guztiak integrazioa lantzeko balio du, beste gazte batzuekin harremanetan daudelako. Bide batez, kulturartekotasuna ere lantzen dute, bakoitzaren herrialdeko postre eta jakiak prestatu izan dituztelako. "Eurak gustura daude", uste du Eukenek. Ikasten dutenak zeozertarako balio duela ikusten dute horrela.

Hala ere, lorpenak apurka-apurka datoz. Eukenek lortu du berari euskaraz egitea edo ahalegintzea behintzat. Kontuan izan beharra dago oso euskara maila ezberdina dutela. Elgoibartik kanpo bada A ereduan (gaztelera hutsean) ikasten duenik ere. Etorkin batzuek, gainera, oso denbora gutxi daramate: bi aste, hilabete, pare bat hilabete… "Behintzat interes hori izatea lortu nahi dugu", azaldu du. Eukenek dena egiten die euskaraz eta keinuak erabiltzen ditu hobeto uler dezaten. Horrek gaztetxoen interesa pizten du. Aurten, bukaerarako, hamahiru nerabe izan dira proiektuan, Bolivia, Kuba, Brasil, Errusia eta Ekuadorkoak.

### Iharduerak

Gaztelekuan munduko sukaldaritzak ezagutu aurretik beste iharduera batzuk ere egin dituzte gazte etorkinok. Elgoibar bera ezagutzeari ekin zioten lehenik. "Batzuk etxetik estaziora edo eskolara baino ez dute ezagutzen", esan du Eukenek. Askok ez zekiten KZ Gunea zegoenik, esaterako. Edo Kiroldegiaren berri bazuten, baina bertan zer egiten zuten jakin gabe.

Irteera bat ere egin dute, Zarautzera. Hernaniko gazte etorkin batzuekin egon ziren. Orain, berriz, gynkana prestatzen ari dira, hainbat herrialdetako jokoekin.

Datorren astean amaituko da aurtengo ikasturtea. Eukene pozik dago, urritik ekainera bitartean, astean bi ordu eta erdi eurekin egon ondoren, elkarren artean gero eta hobeto moldatzen direlako, lagunak egin dituztelako eta motibatuta ikusi dituelako.

## Gure berbak

### Aditza (19): aditz gehiago

Aditz batzuk gogora ekartzen ahalegindu naiz aurrekuetan, eta hala segittuko dot. Hona beste adibide sail bat (bigarren adibide-sailla da nere ustez jatorragua edo “elgoibartarragua”) :

- *Intentau gendun umia amorrarazten, baiña alper-alperrik.*
- *Aipatu gendun arazo hori batzarrian.*
- *Aittak ez nau animau iñoiz ehizian ikastera.*
- *Zapatu honetan ezkontzen da, eta alterauta dabil.*
- *Basarrittik bakarrik bizi diran familixak gutxitu egin dira.*
- *Kalian lan egitten deben basarrittarrak gero eta gehixago dira.*
- *Elgoibarko mendi-itzulixa egin naban, eta oso nekatuta amaittu naban.*
- *Umia kontrolau eziñik ibiltzen dira guraso hórrek.*
- *Asko eskertzen dizut nitaz akordatzia.*

Horren aldian, nik nahixago ondorengo hauek erabiliko bagenduz:

- ***Ahalegindu** giñan umia **amorrau eragitten**, baiña alper-alperrik.*
- ***Aittatu** gendun arazo hori batzarrian*
- *Aittak ez ditt iñoiz **aurrerapenik eman** ehizian ikasteko.*
- *Zapatu honetan ezkontzen da, eta **aztorauta** dabil.*
- *Basarrittik bakarrik bizi diran familixak **bakandu** egin dira.*
- ***Ugaldu** egin dira kalian lan egitten deben basarrittarrak.*
- *Elgoibarko mendi-itzulixa egin naban, eta **errendi(d)uta** amaittu naban.*
- *Umia **errendi(d)u** eziñik ibiltzen dira guraso horrek.*
- *Asko **estimatzen** dizut **nerekin akordatzia.**≤*

*Jesus Mari Makazaga*

## Erretratu zaharra

### 1954

Aste honetako erretratu zaharra Juanito Gorostizak ekarri digu. Markinako futbol taldea eta Elgoibarko Flejea azaltzen dira argazkian. Egun horretan Markinako Artibai futbol zelaian jokatu zuten partida. Hainbat urtetan erabili gabe egon ondoren, futbol zeilaia berriro inauguratu zuten. Markinako Esperanza lantegiko jabeak, Castor Uriartek, C.D. Elgoibarko bigarren taldea gonbidatu zuen ekitaldi horretarako. Norgehiagoka elgoibartarrek irabazi zuten, 1 eta 2ko emaitzarekin.

Gogora ditzagun talde hartako futbolariak:

Goian, ezkerretik eskumara: Juan Lasa, Toribio Lartain, Inazio Badiola “Moka” (†), Fernando Astigarraga, Juanito Galarraga eta Daniel Lasa.

Makurtuta, ezkerretik eskumara: Pako Moreno, Agustin Artola (†), Alejandro Alvarez, Amado Iriondo eta Javier Arregi.





# I. URTEURRENA

2007ko ekainaren 7an hil zen, 78 urte zituela, ***Luis Bilbao Galarraga*** jaunaren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, ekainak 7, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.

*BETI MAITASUNEZ GOGORATUKO ZAITUGU*



GOIMEK
GRUPO DANOBAT

Itziarko Industrialdea, 2. Partzela
P.O.Box: 5
Tel: (34) 943 606315
Fax: (34) 943 254405
E-20829 ITZIAR (DEBA)

***Itziarren kokatutako Makina Erreminta arloko enpresak***

**Lanpostu hau bete behar du**

# FRESATZEKO ZUBI eta MANDRINADORA MAKINAKO LANGILEA

***Lanpostuaren ezaugarriak***

- Fresatzeko eta Mandrinadora makina handiak (zubi makinak, zutabe mugikordunak edo antzekoa) manejatzen esperientzia duen pertsona bat behar dugu, bai arbasketa operazioetarako eta baita amaiera operazioetarako ere.

***Eskatzen da*:**

- Formazioa: Goi mailako heziketa zikloa.
- Esperientzia: Antzeko postu batean esperientzia izatea.
- Hizkuntzak: Euskara.
- Taldean lan egin ahal izateko komunikaziorako eta harremanetarako gaitasuna.

***Eskaintzen da***

- Berehala hastea lanean
- Esperintziaren araberako soldata

**Interesa duzuenok bidali CVa Debako 5. Posta Kutxatilara, Giza Baliabide Departamentura zuzendua ekainaren 30a baino lehen.**

GIZATASUNA LANEAN
MONDRAGON

# Atxutxiamaikaren udalekuetan 256 haur eta gaztetxok hartuko dute parte

## Datorren barixakuan amaituko da izena emateko epea

Atxutxiamaikaren udako planak haur eta gazteei eskaintza zabala eskaini die. Aurten hiru udaleku itxi eta udaleku irekiak antolatu ditu. Ekainaren 30etik uztaileraren 6a bitartean, Askizun (Getaria) egingo da lehena. LHko 3. eta 4. mailako 20 haurrentzako izango da, eta, besteak beste, surfa edo ur jolasak egiteko aukera izango dute.

Uztailaren 23tik 30era, LHko 5. eta 6. mailakoak Lizarrara joango dira. 43 ikaslek txangoak izango dituzte Urbasara eta kirol gunean zubi saltoan edo piraguan jardungo dute. Uztailaren 26tik abuztuaren 4ra bitartean, Mundakan, surfaren erreinuan, itsasoa interpretatzeko gunea bisitatuko dute, baita Laida eta Bermeo ere, eta ur jolasak egingo dituzte besteak beste. Udaleku irekiak, berriz, ekainaren 30etik uztailaren 24ra bitartean egingo dira HH eta LHko ikasleentzako. Haur talde bakoitzak bi hezitzaile izango ditu.

### Bilerak

Udalekuak egin aurretik guraso bilerak egingo dira xehetasun gehiago emateko. Etxera helduko zaie gurasoei bilerarako gonbidapena. Datorren barixakura bitartean aukera dute interesatuek azken plazetan izena emateko. Atxutxiamaikako udako planean bost koordinatzailek, 39 hezitzailek eta 256 ikaslek hartuko dute parte.



### India, Vietnam eta Tailandia, "Ostegun bidaiarietan"

Bederatzi bidaiarik munduko beste hainbat txoko ederren inguruko hainbat xehetasun eta informazio erabilgarri emango dute *Ostegun Bidaiariak* izeneko hitzaldi zikloaren baitan, eguenero, ekaina amaitu artean. Gazte Informazio Bulegoak antolatutako hitzaldiak Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango dira 19:00etatik 20:30era. Datorren astean India, Vietnam eta Tailandia izango dituzte hizpide.

### Ikastolaren Eguna bihar, zapatua, izango da

Elgoibar Ikastolak egitarau zabala prestatu du biharko, Ikastola Eguna ospatzeko 11:00etatik 18.30etara. Altxorraren bila eta Olinpiadekin hasiko da, eta jarraian gynkana eta tailerrak egongo dira. Bazkaria goiko kantxan egingo da 14:00etatik aurrera, eta 15:45etan, Errazu Bertso eskolako emanaldia eta mus txapelketa, besteak beste. 16:15etan, musika eta dantza saioari ekingo zaio. Eta bukatzeko, izugarrizko ezustekoa antolatu dute.

### "Gaur jaia" ikuskizuna Kiribilkako azken saioa

Kiribilka programaren uda aurreko azken saioa datorren barixakuan egingo da Plaza Handian eguraldiak lagundu ezkero. Xilipurdi taldearen *Gaur Jaia* haur dantzaldiarekin esango du gero arte Kiribilkak. Emanaldia 17:30etatik 18:30etara egongo da ikusgai.




ESKERTZA

2008ko maiatzaren 29an hil zen, 79 urte zituela,
*Pedro Avila Moreno* jaunaren sendiak
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak





# TOMAS DEL OLMO

Tenis enpresaburua

**Basartek eta 40/15 tenis elkarteak antolatutako tenis txapelketerako ezin aproposagoak izan ziren Tomas del Olmo Diverteniseko gerenteak ekarri zituen jokoak. Izan ere, euria zela-eta, Olaizaga kiroldegian egin zen jaialdia. Del Olmo Katalunian bizi da, besteak beste urte guztian zehar tenisean jokatzeko aukera eskaintzen duelako. Orain dela hamar urte hasi zen kirol hori herrian bultzatzen, bere enpresa sortzen hasi zen sasoi berean. Urte berezia da aurtengoa.**

## "Pirateria mordoa dago tenis munduan"

**Tenis jaialdirako etorri zara ziztu bizian Bartzelonatik. Orain dela hamar urte herrian tenisaren presentzia eskasa zen...**

Bai, hortik ibili ginen sinadurak biltzen, tenis pista bat lortu nahian. Danobaten zegoen pistan entrenatzen genuen IMHkoa lortu aurretik. Gure asmoa tenisa bultzatzea zen jaialdi batekin. Sasoi hartan Alberto Berasategi etorri zen, musutruk.

**Gutxik dakite Arrigoarriagako tenislariari aitak egin ziola berarentzat bakarrik tenis pista. Zuek lan gehiago egin behar izan zenuten...**

Bai, hori da. Afizioa bazegoen, baina Euskadiko herrietan frontoiak dauden bezala, Katalunian tenis pistak daude.

**Katalunian lan egitera derrigortuta zeunden?**

Bai, tenis kulturarengatik eta eguraldiarengatik. Urte guztian honetatik bizi nahi baduzu, ez dago ia beste aukerarik.

**Divertenis izeneko enpresa bat sortu duzu eskoletan tenisa bultzatzeko asmoz. Zenbat ikasle dituzue?**

Iaz, ikasturtean zehar, 1.187, eta horietatik 900 gaztek tenis eskolak jasotzen dituzte. Eskolekin hitzarmenak ditugu.

**Askok Rafa Nadal izan nahiko dute, ezta?**

Gazteak engatxatzeko eta tenisaren mundura erakartzeko modua da. Tenisa ere erakargarri egin behar da.

**Arancha Sanchez Vicarioren preparatzailea ere izan zinen. Hark baino hanka hobeagorik gutxik zituzten...**

Lan mordoa egin genuen. 70 kilo pisatzen zituen, eta zazpi kilo galtzeko beharrrean hasi ginen.

**Preparatzaile izateari laga ondoren sortu zenuen enpresa. Zer dela eta?**

1997an laga nuen. Julian Alonso sasoi hartako Martina Hingisen mutila prestatu nuen. Hori izan zen egin nuen azken lana. Jokalariek partidak galtzen bazituzten erruduna azkar bilatzen zuten, eta erre egin nintzen. Tenisean pirateria mordoa dago. Hasieran tenis txapelketekin hasi ginen. Baina gero tenis eskolak bultzatzea erabaki nuen, eta tenis pistarik ez zegoen lekuetara joan ginen. Tenis pistak muntatzeko ahalmena dugu.

**Zure enpresak hamar urte egin ditu, eta Espainiako Tenis eskola onenaren saria irabazi du.**

Bai, baina urte gogorra izaten ari da, lan mordoa dugulako. Lekuz aldatu dugu, Bartzelonako pijoen lekura joan gara, eta udako campusak prestatzen gabiltza. Denbora libre gutxi dut.

**Noiz egon zinen azken aldiz Elgoibarren?**

Ermuaranbideko ONUko jaian egon nintzen.

# CD Elgoibarrek gaur, barixakua, egingo du ezohiko batzarra

## Zuzendaritza taldea berritzea izango du helburua

Kultur Etxean egingo da gaur 19:00etatik aurrera CD Elgoibarren ezohiko batzarra, zuzendaritza taldea berritu, presidentea izendatu eta beste hainbat xehetasun zehazteko. Gaur egun bost lagun daude elkarte elgoibartarraren ibilbibidea zuzentzen, eta lekukoa emateko sasoia heldu dela adierazi dute. Bestalde, Pablo Turrillas Haundiko entrenatzaileak taldea laga du, Bizkaiko Areeta zuzentzeko. Elgoibarko taldearen egoera ikusita, ehun urte egingo dituen klubera joatea erabaki du.

**Kerman, Idarraga Sariaren irabazlea**

Haundiko Jokalari Erregularraren Idarraga Saria Kermanek irabazi du. 83 puntu lortu zituen denboraldiko puntuaketa guztiak gehituz. Jarraian Navarrete (78 puntu) eta Gabilondo (67 puntu) geratu dira. Pasa den zapatuan egin zuten afarian eman zion Javi Idarragak garaikurra, eta datorren denboraldian jarraitzeko asmoa agertu zuen pozarren.




*Kermanek 83 puntu lortu ditu.*

## Angel Ibarluzea, hiru txirloan jaun eta jabe

Elgetako bolatokian jokatutako azken jardunaldiarekin amaitu zen Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketa eta Angel Ibarluzeak laugarren txapela (1995, 2002, 2004 eta 2008) lortu zuen. Euskadiko txapelketa ere birritan (2005 eta 2007) irabazi du, eta txapeldunorde ere beste hainbatetan izan da. Emakumeen kategorian txapeldunorde izatea lortu du Aitziber Olaizolak. Infantil eta jubenil mailetan ere Ibarluzeatarrak izan dira nagusi, Jon eta Julen anaiak, hurrenez hurren.



# Tenis jaialdiaren arrakastaren ondoren bi ikastaro eskainiko dituzte



Ume eta gaztetxo mordoa bildu ziren pasa den zapatuan tenis jaialdian parte hartzeko. Domekan, berriz, Basarte elkarteak eta 40/15 tenis elkarteak antolatu zuten tenis txapelketako finalak jokatu ziren, euria zela eta Olaizaga kiroldegian bertan, IMHko tenis pistan izan beharrean. Gainera, antolatzaileak tenisa bultzatzen jarraituko dute bi ikastarorekin: bata, ekainaren 17an hasiko da 16 urtetik gorakoentzako, eguenetan egingo da 19:00etatik 20:30etara, hamabost orduko iraupena eta 45 euroko prezioa izango du; bestea ekainaren 13an hasiko da eta barixakuetan egingo da 19:00etatik 21:00etara. 36 euroko prezioa izango du. Informazio gehiago jasotzeko deitu 637 990 159 edo 670 665 797 telefono zenbakira.



ASIER ARANBERRI GUEREÑO

*EZ ZAITUGU GEHIAGO IKUSIKO GURE ARTEAN,*

*BAINA BETIRAKO EGONGO ZARA GURE OROIMENEAN.*

*Elgoibarko zure lagunak*



# Iban Zubiaurrek Realari bost milioi euro ordaindu beharko dizkio

## Auziarekin CD Elgoibarrek 500 euro jasotzea espero du

Espainiako Auzitegi Gorenaren epaiak bukatutzat eman du Zubiaurre kasua. Epaiaren arabera, Athleticek bost milioi euro ordaindu beharko dizkio Realari Iban Zubiaurre jokalariagatik. Auziak ia hiru urte iraun du, 2005eko uztailaren 1ean Fernando Lamikiz Athleticeko orduko presidenteak Zubiaurre klubeko jokalaria aurkeztu zuenetik. Zubiaurre ordura arte Realekoa zen, eta txuri-urdinek auzitara eraman zuten fitxaketa, jokalariak bere kabuz kontratua hautsi zuelako.

Reala kalte-ordainetan 30 milioi eskatzera iritsi zen, baina EAEko Auzitegi Nagusiak 2006ko bost milioiko kopurua jarri zuen. Gorenak, azkenean, ez ditu hiru aldeek jarritako errekurtsoa onartu.

Auziak bi taldeen arteko harremanak gaiztotu ditu. Mendaroarrak, orain, bere etorkizunari aurre egin beharko dio. Athleticen laguntza izango du talde berria bilatzeko datorren urteko denboraldiari begira.



Auzi honek dirua ekar diezaioke CD Elgoibarri. Izan ere, Realera joan aurretik Elgoibarko taldeko jokalaria zen. Realak eta CD Elgoibarrek hitzarmena sinatuta dute formazio eskubideak direla-eta. Beraz, kalte-ordainaren %10 (500 milioi) jaso litzake talde elgoibartarrak.

## Atletismo taldeak bikain bukatu du denboraldia



Mintxetako Atletismo Taldeak denboraldi bukaeran balantze "oso positiboa" egin du. Lau jardunaldiren ostean, antxintxikariek primerako emaitzak lortu dituzte. Alebinetan Lorea Santiago Gipuzkoako txapelduna izan da 500 metrotan eta txapeldunordea 2.000 metrotan, eta Ainhoa Etxeberria Gipuzkoako txapelduna pisu jaurtiketan. Infantiletan, Iñaki Sagarna Gipuzkoako txapelketako bigarren postuan geratu da 500, 1000 eta 3.000 metrotan, eta Euskadiko txapelketako 1.000 metrotan. Nora Santiagok ere bigarren postua lortu zuen 3.000 metrotan; Leire Basterretzea hirugarren geratu zen distantzia beran eta Unai Amilleta laugarren 80 metrotan.

## EMAITZAK

### TENISA

**Tenis jaialdia**

Benjamin mutilak

Irabazlea: **Unai Astiazaran**

Finalista: Antxon de la Harada

Benjamin neskak

Irabazlea: **Nerea Solozabal**

Finalista: Leire Urzanki

Alebin mutilak

Irabazlea: **Iker Larrea**

Finalista: Jon Etxaniz

Alebin/Infantil Neskak

Irabazlea: **Maria Badiola**

Finalista: Zuriñe Konde

Infantil Mutilak:

Irabazlea: **Joanes Etxabe**

Finalista: Iñaki Konde

### PILOTA

**Herriarteko txapelketako finalaurdenak.**

**Azken emaitza**

Elgoibar **2** – Hernani **4**

## Futbol 7 txapelketa

Bihar eta etzi, Bailarako Futbol 7 txapelketa jokatuko da Mintxetako futbol zelaian. Partidak 9:00etan, 10:00etan, 11:00etan eta 12:00etan izango dira. Elgoibarko talde hauek parte hartuko dute: Tibet LSD, Buztangorriak, Lmrdap, Kashima Brewers, Pauperrimo Balompie, Smackdown, CSK de Awair, Lokaldel medio, EGS eta Jaika 5 Estrellas.

## Herriartekoan kale egin zuen Elgoibarrek

Ezustekoa emateko prest zeuden pilotari elgoibartarrak Gipuzkoako Herriarteko Pilota Txapelketan. Baina herriko pilotariek ezin izan zioten hernaniarrek Ikastolako frontoian lortutako abantailari (1 eta 2) buelta eman eta eurek jokatuko dituzte aurtengo finalerdiak Donostiaren aurka. Kepak eta Loiolak Hernaniko bikotea 7 tantotan lagaz gero, lortuko zuen aurrera egitea, baina ez zen horrelakorik gertatu, eta 22 eta 11 irabazi zuen Esnalek eta Gorrotxategik osatutako bikoteak.

## LANA

### ESKAERA

• Klase partikularrak ematen ditut. LH, DBH, LOGSE eta zikloak. Ekainean eta uztailean.
☎ 653 717 972
• Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko, zerbitzari aritzeko do garbiketa lanetarako prest.
☎ 680 350 527
• Neska, gauetan tabernetan edo garbiketa enpresa batean lan egiteko prest.
☎ 686 234 612
• Neska, nagusiak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest.
☎ 626 876 186
• Neska, orduka astegunetan edo lan ordu osoa asteburuan egiteko prest.
☎ 646 821 678
• Neska, nagusiak edo haurrak zaintzeko, sukaldean laguntzaile aritzeko edo garbiketa lanetarako prest.
☎608 047 720
• Neska, zerbitzari aritzeko, umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest.
☎ 675 709 452

**Soldatzailea**

• Espainiako titulua duen soldatzailea, peoi lanak egiteko prest.
☎ 661 225 149

• Neska, egun osoko lanean nagusiak edo haurrak zaintzeko prest.
☎ 671 476 869
• Neska, lanerako prest.
☎ 638 494 501
• Neska, lanerako prest.
☎ 686 265 293
• Neska, orduka lan egiteko edo garbiketa lanetarako prest.
☎ 943 53 02 90 / 688 682 398
• Mutila, banatzaile, igeltsero edo tailer batean lan egiteko prest.
☎ 639 984 262
• Neska, garbiketa lanak egiteko prest.
☎ 943 74 22 01
• Neska, portalak edo sukaldeak garbitzeko prest.
☎ 649 212 944
• Neska, umeak zaintzeko prest. Esperientziarekin.
☎ 685 763 946
• Neska, garbiketa lanak egiteko prest. Goizez edo gauez. Interna ere bai.
☎ 697 813 719
• Neska, portaletan lan egiteko edo nagusiak zaintzeko prest.
☎ 699 609 190
• Mutila, sukaldari laguntzaile edo zerbitzari lan egiteko prest.
☎ 650 611 415
• Neska, orduka lan egiteko prest.
☎ 658 164 787
• Mutila, edozertan lan egiteko prest.
☎ 666 215 426
• Neska, zerbitzari, sukaldean laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko prest.
☎ 618 377 283
• Neska gaztea, nagusiak zaintzeko prest.
☎ 616 230 814
• Neska, arratsaldean nagusiei paseoan ateratzeko edo zaintzeko eta erizain laguntzaile lan egiteko prest.
☎ 675 711 658
• Neska, lan egiteko prest.
☎ 650 611 415

### ESKAINTZA

• Pertsona bat behar da gizon nagusia zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Abuztuaren 8tik 18ra. Gizarte Segurantza. Soldata ona.
☎ 639 931 772 (arratsaldeetan)
• Eguazten eta domekarako zerbitzaria behar da jatetxe batean.
☎ 943 12 12 62
• Neska behar da orduka nagusia zaintzeko.
☎ 678 012 477

## ETXEBIZITZAK

### SALMENTA

• Etxea salgai. Erdigunean. Hiru logela, egongela eta sukaldea, bainua eta ganbara. Kanpoaldera begira eta eguzkitsua. Altzariekin eta igogailuarekin.
☎ 666 650 626
• Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukalde berritua, eguzkitsua. Ganbara eta balkoi handia. Altzariekin salgai.
☎ 628 115 677
• Buhardilla salgai Altzolan.
☎ 943 74 34 92

## GARAJEAK

• Bi garaje alokairuan. Plaza Handitik gertu, Jausoro Plazan. Biak itxiak eta ederrak (16 eta 19m²). Bata 75 euro eta bestea 85 euro, hilean.
☎ 615 787 748
• Marradun garajea alokairuan, Juan Mugerza kalean (pista beltza). 38 euro hilabeteko. Autoa, Quad eta motorrentzako.
☎ 616 111 603
• 16 m² -ko garaje txikia alokairuan San Roke kaleko 10ean, kiroldegi atzean.
☎ 943 740 118

## MOTORRA

• Seat Ibiza salgai. Prezio onean.
☎ 678 803 535
• R-Trafic preparatua salgai. 9 urte. 260.000 kilometro. 1.900 diesel, 4.500 euro. Negoziatzeko moduan.
☎ 653 011 043
• Seat Leon TDI beltza salgai. 105 salgai, eguzkirako goialdea, kit aerodinamikoa. 150.000 km. 17.000 euro. Transferitua.
☎ 647 626 693
• Opel Astra Coupe gasolina salgai. 95.000 km. Egoera onean. Beti garajean. 7.500 euro (negoziatzeko).
☎ 665 727 979
• Citroen Saxo diesela salgai. Egoera onean, beti garajean. 97.000 km.
☎ 665 720 681

## BESTELAKOAK

• The Police-n kontzerturako sarrera salgai. Prezio berean. 72 euro. Uztailaren 4ean (BBK Bilbao Live).
☎ 626 146 849
• Bruce Springsteenen kontzertua uztailaren 15ean ikusteko bi sarrera salgai.
☎ 646 790 389

**Pianoa salgai**

• Fuchs Et Möhr markako pianoa salgai. Erabili gabe
☎ 943 12 18 33 / 943 70 22 41

• Alokairuan hartzeko pisu bila gabiltza.
☎ 649 212 944
• Baratza konpartitu nahi nuke. Alde zaharretik gertu dago. Ura du, baita simaurra eta lan egiteko erremintak ere.
☎ 655 723 678 / 943 74 39 19
• Pisua alokairuan Gasteizen. Ikasleentzako. Hiru logela eta egongela.
☎ 670 351 672
• Logela independentea alokairuan, giltzarekin. Deban, pisu propioa. Berria.
☎ 605 585 057

## BEKAK

**ADMINISTRAZIO PUBLIKOA**

IVAP, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. Unibertsitate titulazioa duten pertsonei Administrazio Publikoen alorrean prestakuntza osagarria eskaintzea da beka hauen helburua. Epea: ekainak 17.

**JUAN SAN MARTIN**

Eibarko Udala. Euskarazko Ikerketa sustatzeko eta Juan San Martin eibartar euskaltzale eta ikertzailea omentzeko, bere izena daraman ikerketa-bekarako deialdia egiten du. Epea: urriak 10.

## LEHIAKETA

**GRAFFITIAK**

Topagunea, euskara elkarteen federazioa. Euskal Herriko V. Graffiti Lehiaketa. "Spraikada"n 16 urtetik gorako gazteek har dezakete parte, bakarka edo taldeka. Epea: ekainak 27.

## HAUTAPROBAK

**ZINE EPAIMAHAIKIDEAK**

Gazte epaimahaikideen hautaketa 2008ko irailean egingo den Donostiako Nazioarteko Zinemaldirako, 17 eta 21 urte bitarteko gazteak. Epea: ekainak 15.

**ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA**

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: *gib@elgoibar.org*
☎943 74 14 61

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan:
11:00etatik 13:00etara
Astelehenetik ostiral arratsaldetan:
16:00etatik 19:00etara.

## OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta *12 euro* eta alokairua *8 euro*. Autoak *8 euro*. Eta bestelakoak *5 euro*. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## MODULOAK

| Lana / Bestelakoak | Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra |
|---|---|
| *Astebete : 5 euro* | *Astebete : 10 euro* |
| *2 aste : 8 euro* | *2 aste : 17 euro* |
| *3 aste : 10 euro* | *3 aste : 25 euro* |



• Zorionak, **Leire**, bihar sei urte egingo dituzulako. Zure osaba-izeben partez. Muxu asko.



• Zorionak, **Gorka,** atzo zortzi urte egin zenituelako. Familia guztiaren partez.



• • Zorionak, **Garazi**, lau urte egin dituzu-eta. Familiaren eta bereziki Uraitz eta Naroaren partez.



• Zorionak, **Esther**, hilaren 4an urtebete egin zenuelako. Aitona-amonen partez muxu bat.



• Zorionak zuri, zorionak beti. Zorionak, **Igor**, zorionak zuri. Ondo pasa domekan.



• Zorionak, **Asier**, zure bosgarren urtebetetzean. Familiaren eta bereziki Oihaneren partez.



• Zorionak, **Alex**, etzi hiru urte egingo dituzulako. Muxu bat familakoen eta bereziki Mikelen partez.



• Zorionak, **Mari Carmen**, kafeko lagunen partez.



• Zorionak, **Maialen,** gaur 12 urte egingo dituzulako. Bereziki Aritzen, Aneren eta Nereren partez.



• Zorionak, **Susane,** zure lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat familiaren partez.



• Azkenean iritsi dira 18ak. Ondo ospatu bihar. Familiakoen partez.



• Zorionak, **matraka**, atzo urtebete egin zenuelako. Alproja, Sorgin eta familiakoen partez.



• Zorionak, **gure bikote**, muxu handi bat gurasoen partez.



• Zorionak, **bikote**, oso ondo pasatu zuen ezkontza egunean, familiakoen eta lagunen partez.



• Mika kilo zorion, zuen bigarren eta seigarren urtebetetzean. Muxu handi bana familiakoen partez.



• Zorionak, **Paulo**, zure zortzigarren urtebetetzean. Oso ondo pasa eta laztan mordoa zuretzako.

**OHARRA**

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARRENeko bulegora edo *barren@elgoibarkoizarra.com* e-postara bidali. Tel.: 943 74 41 12

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

**OKINDEGIA**

8 domeka FOTERO

**FARMAZIAK**

24 ORDUZ

| | |
|---|---|
| 6 | Fernandez |
| 7 | Yudego |
| 8 | Yudego |
| 9 | Zabaleta |
| 10 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 11 | Ibañez |
| 12 | Garitaonaindia |
| 13 | Etxeberria *(Santa Ana)* |

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO GEHIAGO:**




Egin klik
*www.elgoiBARREN.net*en

## musika

### 7 *zapatua*

18:00 Hip-Hop lehiaketa
Eliza Ebanjelikoak antolatuta, Madalako parkean.

## erakusketak

### 6 *barixakua*

19:00 Egur tailerraren erakusketa
Arte tailerrean egindako lanen erakusketa Kultur Etxean. Hilaren 20ra arte.

## hitzaldiak

### 12 *eguena*

19:00 Ostegun bidaiariak
Gazte Informazio Guneak oporrei buruzko hitzaldiak antolatu ditu. Kultur Etxean. Hitzaldi horretan, India, Vietnam eta Tailandiari buruzko informazioa eskainiko dute.

## jaialdiak

### 7 *zapatua*

10:00 Ikastolaren eguna
Elgoibar Ikastolan izango da ospakizun ekitaldia.

## Gure gomendioa

### Arkuarekin tiraketa

**Ekainak 8, 11:00etan,**
**Plaza Handian**

Zarta arkulari taldeak antolatuta, umeentzako tiraketa ekitaldia izango da domekan, hilak 8, Plaza Handian. Goizeko 11:00etatik aurrera, Elgoibarko Robin Hood txikiak bilduko dira Plazan, arkuarekin trebeena zein den erakustera.







**«Al otro lado»**
**(Herriko Antzokian)**
6, barixakua: 22:15
7, zapatua: 19:00/22:15
8, domeka: 19:00
9, astelehena: 21:30

Alemania, Turkia, 2007.
Zuzendaria: Fatih Akin.
Aktoreak: Tuncel Kurtiz, Nursel Kose, Patrycia Ziolkowska, Hanna Schygulla.
Iraupena: 120 min.

Nejatek ez du onartuko aitak prostituta batekin duen harremana. Prostituta hiltzean, eta Nejat alabari albistea ematera joango da. Alaba, ordea, Alemaniara doa, lesbiana gazte batekin eta haren ama kontserbadorearekin.

## besteak

### 6 barixakua

**17:30 Kiribilka programa**

Bitik sei urtera arteko haurrentzako eta euren gurasoentzako egitasmoa. Plaza Handian. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

### 7 zapatua

**10:30 Informazio mahaiak**

Organu emaileen nazioarteko eguna dela-eta, jendea kontzientziatzeko mahai informatiboa jarriko da Plaza Handian.

### 8 domeka

**11:00 Arkuarekin tiraketa**

Zarta arkulari taldeak antolatuta, umeentzako arkuarekin tiraketa jardunaldia izango da. Plaza Handian.

### 13 barixakua

**17:30 Ginkana**

Gaztelekuak antolatuta, Gazteleku eta Ludoteka artean.

Lanbroa




Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 • Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

# Zerikasi

## IKASTAROAK

**Merkataritza saltzaile ikastaroa**

Norentzat: Langabetu eta ikasi nahi duten guztientzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: Ekainak 9 / Bukaera data: ekainak 14
Non: Eibarren
Izenemate bukaera: Kontsultatzeko

**Txinera**

Norentzat: Denentzat
Hizkuntza: Txineraz
Hasiera data: Ekainak 23 / Bukaera data: uztailak 17
Non: Elgoibarren
Iraupena: 16 ordu

**Discosana jaietan**

Norentzat: Txosna eta jai batzordeetako kideentzat
Hizkuntza: Euskaraz edo gazteleraz
Hasiera data: Ekainak 9 / Bukaera data: ekainak 11
Non: Eibarren
Izenemate bukaera: Ekainak 5

**Kutxazain ikastaroa**

Norentzat: Langabetu eta ikasi nahi duten guztientzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: Ekainak 9 / Bukaera data: ekainak 14
Non: Eibarren
Izenemate bukaera: Kontsultatu

**Webguneen diseinua eta multimedia**

Norentzat: Langabetu eta ikasi nahi duten guztientzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: Ekainak 9 / Bukaera data: ekainak 14
Non: Eibarren
Izenemate bukaera: Kontsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
***www.zerikasi.com edo 943 74 82 71***

## ELGOIBARKO UDALEKO EUSKARA SAILAK ETA ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEAK LANGILE BAT BEHAR DUTE IKERKETA LAN BAT EGITEKO:

**ZER ESKATZEN DA?**

- Elgoibarko herria ondo ezagutzea.
- Harremanetarako egokitasuna izatea.
- Euskaraz, ahoz eta idatziz, gaitasun egokia izatea (3. HE edo EGA).
- Word eta Excel programak erabiltzen jakitea (oinarrizko ezagutza).
- Txostenak idazten gutxieneko esperientzia edukitzea.

**ZER ESKAINTZEN DA?**

- Egun erdiko kontratua hiru hilabete eta erdirako (ekainaren bukaeratik urrira bitartean).

**INFORMAZIO GEHIAGO:**

- Euskara Saila: *euskara@elgoibar.org* - Tel: 943 74 43 66
- Elgoibarko Izarra: *imanol@elgoibarkoizarra.com* - Tel: 943 74 16 26

**ESKAERAK ETA CURRICULUMAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA:**

- Ekainaren 16a

Euskara Saila

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

Belaustegi Baserria JATETXEA

San Migel Gaina z/g · Tel. 943 74 31 02



Eskerrak guztioi!

Menu berezia

Ekainaren 10tik 16ra

Edaria eta kafea 39,50 € (+bez)

9.urteurrena







Portxe-jardinean bazkaldu edo afaltzeko aukera.
Ostiral eta larunbatetan, gaueko 10etatik aurrera kopak jardinean.

# ELGOIBAR B.H. INSTITUTUA
# 2008/09 IKASTURTEA



**Elgoibar B.H. Institutua**
Arregitorre 2
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net
**www.elgoibarbhi.net**

**ERDI MAILAKO ZIKLOAK**
Ibigailuen elektromekanika
Karrozeria
Merkataritza
Erizaintza-laguntza osagarriak

**GOI MAILAKO ZIKLOAK**
Automozioa
Administraritza eta finantzak
Haur-hezkuntza

**Aurrematrikula-epea:**
**Ekainaren 2tik 13ra**
**Etor zaitez egun hauetan gure institutua ezagutzera**

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Asima**
Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso Leihoak**
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Indusketa lanak

**Lekunberri indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.es
www.excavacioneslekunberri.com

## Lorezaintza

**Pagoa loradenda**
Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307

## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

**Ibámar**
Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

**Javi**
Erretxindi, 1 behea
☎ 659 772 932

**Ongi**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 7 · MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

**Santa Ana iturgintza eta instalazioak**
Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44

## Pinturak

**Blok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

**Ku Kolorea**
Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Autoentzako tindatutako kristalak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94